

ITXURAK BAI BAINA...

1

Eleiza dala ta ez dala,
sortu jakun astrapala;
Jainkoak gorde gaizala!
Eleizak hutsik daukaguz, baina
maixuak uxatu-ahala.
“Eleiza ez da leiala,
batez be “ofiziala”;
hau da askoren tripala.

3

Jaio barritan estura,
bota bateoko ura;
besterik ez dau ardura.
Gurasoak eta kristau helduak
nagi dira ta logura.
Berba politen lilura,
baina bizitzan malura;
behar dana da *itxura*.

5

Gero datorren papela:
haurdun dago Manuela,
ezkondu behar duela...
Hamasei urte ez daukaz eta
nok bedeinkatu pastela?
Zentzuna antzu, motela
baina ernari sabela;
behin ezkondata, bestela!

7

“Onenak ein dau” esanda,
dator azkenengo txanda:
prestau meza eta anda.
“Aita Santuan Onespenaz ta
Sakramentuekaz joan da”...
Hil dana santu ta santa,
“Gora” edo “Eusko” kanta;
eta agur hainbeste planta!

2

Eleizak honela dino”,
baina hau da kondizino:
“neugaz egon ezketino”.
Trento ez bada, Batikano da,
lege edo tradizino.
Gixonto edo tximino,
bizi gaituk oraindino;
hau dok gure erlijino!

4

Txotxo koxkondu-barritan
komuninoa argitan,
hor barriro izerditan!
Zer ta nun jango, ta zer jantziko
“monjatxo” edo “kapitan”.
Hori dala-ta sarritan
abadeekin erritan.
ta Korte Ingles ezitan.

6

Behin bat ezkondu ezkerro,
bardin da kristau ta pezero;
jo natarilerilero...
Hileta baten ezetz igarri
nor dan kristau, gerrilero?
Jan-edanean bai bero,
zintzotasunean zero;
hain garbi ez esan, gero!

8

Horra zortzi bertso barri
geure buruari jarri,
zeinentzat dan nork igarri?
Itxuraz barik, egiz gaitez
guztientzat sinisgarri.
Jokatu buru-belarri
zintzo lagunduz alkarri,
Kristo dogula oinarri.